Bestalde, kontrolak egiten dituzten garaian, gutxienez bi koordinazio eta jarraipen bilera egingo dira (bat hasieran eta bestea amaieran), Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuaren kontratuaren xede diren programak gauzatzeko arduradunen, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuko albaitari teknikarien eta adjudikaziodunaren ikuskaritzako langileen artean, egindako ekintzak aztertzeko eta baloratzeko, eta jarraipen eta/edo zuzentze jarraibideak ezartzeko.

13.- EGINDAKO KONTROLEN KALITATEA: JARDUTEKO PROGRAMAK ETA PROZEDURAK.

Kontratu honetan aurreikusitako lanak egiteko, zorrotz beteko dira kontrol ofizialeko programetan, lan prozedura normalizatuetan eta preskripzio teknikoen agiri honetan deskribatutako protokolo espezifikoetan adierazitako jarraibideak eta irizpideak, baita Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak lana hobeto egiteko eman ditzakeen jarraibideak ere.

Entitate adjudikaziodunak autokontrol bat egingo du informazioa Administrazioari bidali aurretik. Adjudikaziodunak ezarritako autokontrol prozedura baloratuko da.

Kontrol Zerbitzuak egindako ikuskapenen dokumentuen berrikuspena egingo du, egiaztatzeko datuak beteta daudela, informazioa koherentea dela, akta eta erantsitako txostena sinatuta daudela, eta, sinatuta ez badaude, oharren atalean arrazoia idatzi behar dela, inprimatutako eta Zerbitzuari emandako dokumentazioa zuzena dela eta behar bezala ikusten dela.

12- PLAN DE FORMACIÓN Y COORDINACIÓN.

Todo personal habilitado para la realización de los controles oficiales deberá asistir a los seminarios y reuniones informativas que desde el Departamento de Equilibrio Territorial Verde se impartan para el correcto desarrollo de su labor.

Estos seminarios tendrán como objetivos:

- Informar y formar al personal sobre la legislación aplicable
- Unificar los criterios de interpretación de los inspectores sobre las actas y la sistemática de los controles.
- Dar instrucciones precisas sobre: desarrollo de los controles, cumplimentación de las actas, envío de resultados, etc.

Por otra parte, durante el periodo de ejecución de los controles se realizarán al menos dos reuniones de coordinación y seguimiento (una inicial y otra final) entre los responsables de la ejecución de los diferentes programas objeto del contrato del Servicio de Inspección y Control, los técnicos veterinarios del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera, y el personal de inspección de la adjudicataria para analizar, valorar las acciones realizadas y establecer las pautas de seguimiento y/o correctoras.

13- CALIDAD DE LOS CONTROLES REALIZADOS: PROGRAMAS Y PROCEDIMIENTOS DE ACTUACIÓN.

Los trabajos contemplados en este contrato se realizarán siguiendo estrictamente las pautas y criterios señalados en los Programas de Control Oficial, en los Procedimientos Normalizados de Trabajo y en los protocolos específicos descritos en este pliego de prescripciones técnicas, así como en las indicaciones que desde el Servicio de Inspección y Control se puedan dar para la mejor realización del trabajo.

La entidad adjudicataria realizará un autocontrol previo a la remisión de la información a la Administración. Se valorará el procedimiento de autocontrol implementado por la adjudicataria.

Una vez recibida la documentación, el Servicio de Inspección y Control realizará una revisión documental de las inspecciones realizadas para comprobar que los datos estén cumplimentados, que la información tenga coherencia, que el acta y el informe anexo estén firmados, y si no lo están, que en observaciones se anote el motivo en el apartado de observaciones, que la documentación imprimida y entregada al Servicio sea correcta y que se vea correctamente.

Alderdi horiek egiaztatu ondoren, espedienteak (akta eta erantsitako txostena) Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzura bidaliko dira. Zerbitzua honako lan hauetaz arduratuko da: dokumentuak gainbegiratzea eta tokian bertan egin beharreko gainbegiratzeak egitea, txostenak egitea, ez-betetzeen aurrean prozedurak egitea eta kontrol ofizialaren eraginkortasuna egiaztatzea. Kontrol ofizialaren eraginkortasuna Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak egiaztatuko du.

Comprobados estos extremos, los expedientes (acta más informe anexo) se remitirán al Servicio de Inspección y Control, quien será la encargada de la realización de las supervisiones documentales e in situ, elaboración de informes, procedimientos ante incumplimientos. La verificación de la eficacia del control oficial la realizará el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera.

14.- BERME JURIDIKOAK ETA TEKNIKOAK.

Elikadura katearen kontrol ofizialak egiteko baimena duten albaitariek ez badituzte betetzen Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak emandako irizpide teknikoak, eta Animalien Osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legearen eta indarrean dagoen gainerako osasun-araudiaren aurkako edozein arau-hauste egiten badute, balizko zehapen espediente administratiboa irekitzeaz gain edo eska dakizkieken erantzukizun penalez gain, albaitari laguntzailea kentzea ekarriko du, eta, beraz, debekatuta izango du kontratuarekin lotutako edozein akta ofizial egitea.

14.- GARANTÍAS TÉCNICO-JURÍDICAS.

La no observancia por parte de los Veterinarios autorizados para la realización de los Controles Oficiales de la Cadena Alimentaria de los criterios técnicos emanados desde el Servicio de Inspección y Control así como cualquier infracción contra la Ley 8/2003 de 24 de abril de Sanidad Animal y demás normativa sanitaria en vigor, supondrá además del posible expediente administrativo sancionador, o las correspondientes responsabilidades penales en las que pudiera incurrir, la retirada de veterinario colaborador, y por lo tanto la prohibición de realización de cualquier acta oficial sujeto al presente contrato.

15. INFORMAZIOA KUDEATZEKO JARRAIBIDEAK.

Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzari nagusiaren datu baseko datuak eguneratuta edukitzeko, adjudikaziodunak **egunean behin gutxienez** bidali eta jaso behar ditu datuak. Zerbitzuarekin lotutako arrazoiak direla medio edo beste zenbait arrazoien ondorioz beharrezkoa balitz datuak zerbitzari nagusiaren Datu Basean eguneratzen direla ziurtatzeko, datu basearekin beharrezkotzat jotzen diren konexio guztiak finkatuko dira.

15. PAUTAS DE GESTIÓN DE LA INFORMACIÓN.

A fin de mantener actualizados los datos de la Base de Datos del servidor central situado en la Diputación Foral de Gipuzkoa, el adjudicatario debe enviar y recibir **datos como mínimo una vez al día.** Si por razones de servicio u otras razones fuera necesario, se establecerán tantas conexiones con la base de datos como fuera preciso para asegurar la actualización de los datos de la Base de Datos del servidor central.

16.- JARDUEREN AURREIKUSPENA.

Kontratu aldirako jarduera aurreikuspenak erantsitako taulan daude jasota:

16.- PREVISION DE ACTUACIONES.

Las previsiones de actuación para el periodo contractual, son las reflejadas en la tabla adjunta:

EKINTZAK ACTUACIONES	AURREIKUS-PENAK PREVISIÓN	Prezioa (BEZa gabe Precio sin IVA)	Prezio garbia Precio neto/año	Beza %21 IVA 21%	Guztira BEZa barne Total IVA incluido
Abeltzaintzako ustiategien higiene-ikuskaritza bateratua. Inspección unitaria de higiene de las explotaciones ganaderas.	45	219,26€	9.866,70€	2.072,01€	11.938,71€
Animalien ongizatearen ikuskapen bateratua. Inspección unitaria de bienestar animal.	90	191,74€	17.256,60€	3.623,89€	20.880,49€
Higieneko eta ongizateko ikuskapen bikoitza. Doble inspección de higiene y bienestar.	14	329,33€	4.610,62€	968,23€	5.578,85€
Kontrol osagarria (ustiategi bereko hirugarren kontrola). Control suplementario (tercer control en la misma explotac.).	3	99,07€	297,21€	62,41€	359,62€
Osasun-alarmek aurreikusi gabeko beste ikuskapen batzuk. Otras inspecciones no previstas por alarmas sanitarias.	4	219,26€	877,04€	184,18€	1.061,22€
Animalien garraioaren ikuskapenak. Inspecciones de transporte animal.	25	301,81€	7.545,25€	1.584,50€	9.129,75€
Animalien elikadurarako pentsuen laginak jasotzea. Recogida de muestras piensos para alimentación animal	5	55,04€	275,20€	57,79€	332,99€
Kalitate higienikoko esnearen laginak biltzea. Recogida de muestras de leche de calidad higiénica.	5	55,04€	275,20€	57,79€	332,99€
Ustiategiko animalien hilketaren kontrol unitarioa. Control unitario matanza animales en explotación.	1	219,26€	219,26€	46,04€	265,30€
Urteko zenbatekoa. Importe total anual.			41.223,08€	8.656,85€	49.879,93€
5 urterako zenbatekoa. Importe para 5 años			206.115,40€	43.284,23€	249.399,63€

Donostian, sinadura elektronikoaren datan / San Sebastián, a fecha de firma electrónica

Fdo: Agurtzane Andueza Otaegi

Ikuskapen eta Kontroleko zerbitzuburua/Jefa de servicio de Inspección y Control

I. ERANSKINA

DOKUMENTUEN ETA MATERIALEN ZERRENDA.

Ikuskatzaile bakoitzak izan behar dituen materialen eta ekipo teknikoaren zerrenda, kontrola egin eta balizko ez-betetzeen frogak aurkeztu ahal izateko:

Gutxienez honako material hau izango dute:

1.- Dokumentazio orokorra:

- Ikuskatzaile ofizial gisa identifikatzeko agiria.
- Ustiategiei buruzko informazioa.
- Ikuskapen aktak eta akta horiek betetzeko jarraibideak.
- Entregatutako ekipamenduen eta materialen zerrenda.

2.- Laneko materiala, babes pertsonala eta laginak hartzea:

- Behin erabiltzeko lan-jantziak.
- Oinetako babesak.
- Latexezko eskularruak.
- Eskuoihalak edo produktu desinfektatzailea.
- Laginak kontserbatzeko hozkailua. (*)
- Pentsu, ur, odol, esne eta abarren lagin ofizialak hartzeko poltsak, poteak eta abar. (*)
- Esne laginak hartzeko tresnak. (*)
- Lagin ofizialetarako zigiluak. (*)
- Argi eta soinu neurgailuak (itzultzeko betebeharrarekin lagako dira).
- - Zinta metrikoa.
- Kalkulagailua.
- Telefono mugikorra.
- Departamentuko Informatika Zerbitzuak gomendatu eta homologatutako ekipo informatikoa eta komunikazio modema. Gutxienez hurrengo zehaztapenak bete beharko ditu:
  - Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuak erabiltzen duen plataforma operatiboa duten ordenagailu eramangarriak izatea.
  - Ordenagailu eramangarrira konektatutako inprimagailu bat izatea.
  - Banda zabalaren konexio mota: ADSL, MODEM kablea, UMTS konexioak

Erabili beharreko material informatikoa funtzionamendurako baldintzetan egon beharko da uneoro. Horretarako, esleipendunak, eskaintzarekin batera, horiek kreditatutako enpresa batekin mantentzearen justifikazioa aurkeztu beharko du.

ANEXO I

LISTADO DE DOCUMENTOS Y MATERIALES.

Listado de materiales y equipo técnico con que debe contar cada inspector/a que le permita realizar el control y aportar pruebas de los posibles incumplimientos:

Al menos contarán con el material siguiente:

1.- Documentación general:

- Documento de Identificación como inspector oficial.
- Información sobre las explotaciones.
- Actas de inspección junto con las instrucciones para su cumplimiento.
- Listado de equipamiento y materiales entregados.

2.- Material de Trabajo, protección individual y toma de muestras:

- Monos de trabajo desechables.
- Calzas.
- Guantes de látex.
- Toallas o producto desinfectante.
- Nevera para la conservación de las muestras (*).
- Bolsas, botes, etc. para la toma oficial de muestras de piensos, agua, sangre, leche, etc. (*)
- Instrumental para la toma muestras de leche. (*)
- Precintos para las muestras oficiales. (*)
- Medidores de luz y sonido (Se cederán con obligación de devolución) (*)
- Cinta métrica
- Calculadora
- Teléfono móvil
- Equipo informático y módem de comunicación recomendado y homologado por los Servicios informáticos del Departamento. Deberá cumplir como mínimo las siguientes especificidades.
  - Disponer de ordenadores portátiles provistos de la plataforma operativa que utiliza el Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
  - Disponer de impresora conectada al ordenador portátil.
  - Conexión banda ancha tipo: ADSL, cable MODEM, conexiones UMTS

El material informático a utilizar tiene que estar permanentemente en condiciones de funcionamiento. Para ello, el adjudicatario presentara con la oferta justificación del mantenimiento de los mismos con una empresa acreditada.

Ordenagailuak antibirusa izan beharko du instalatuta, ordenagailu eramangarria behar bezala babestuta egoteko eta arriskuak murrizteko.

Argazki-kamera digitala (gutxienez 8 MP bereizmenekoa).
- Karpetak, boligrafoak eta papera.
- Gomazko bota egokiak.
- Ustiategietara joateko ibilgailu propio eta egokia.

Lurralde Oreka Berdeko departamentuak kontratu honetako programen kudeaketa eta komunikazioko aplikazio informatikoak garatu eta mantenduko ditu.

Izartxo batez markatutako materiala Gipuzkoako Foru Aldundiak emango du.

El ordenador tiene que disponer de un antivirus para mantener el portátil correctamente protegido y minimizar riesgos.

- Cámara digital de fotos (resolución mínima de 8 MP).
- Carpetas, bolígrafos y papel.
- Botas de goma adecuadas.
- Vehículo propio adecuado para acceso a las explotaciones.

El Departamento de Equilibrio Territorial Verde desarrollará y mantendrá las aplicaciones informáticas de gestión y de comunicaciones de los diferentes programas del presente contrato.

El material marcado con un asterisco será aportado por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

II. ERANSKINA

IKUSKATZAILEAK ETA IKUSKAPEN PROZEDURA.

Ikuskapen taldeak, dagokion programaren arabera, lekuan bertan egin beharreko kontrol ofizialak egiteko, irizpide hauei jarraituko die:

1.- Jarduteko irizpide orokorrak.

Lekuan bertan egin beharreko kontrolak iragarri ahal izango dira, betiere lortu nahi den helburua arriskuan jartzen ez bada eta hala aurreikusita dagoen kontroletan. Abisua beharrezkoa den gutxieneko epera mugatuko da, eta ez da 48 ordutik gorakoa izango. Kontrolaren abisuaren data aktan agertuko da, eta kontrolaren arrazoia justifikatu beharko da.

2.- Ikuskatzaileek honako hauek bete beharko dituzte:

- Beharrezko informazio guztia eta jarraibide zehatzak izatea, kontrol guztiak aurrez ezarritako prozedura komun baten arabera egiten direla bermatzeko.
- Kontrol ofizialeko eginkizun horiek betetzeko behar diren esperientzia, ekipoak eta azpiegitura izango ditu. Eskatutako prestakuntza Eusko Jaurlaritzak edo haren erakunde autonomoek antolatutako prestakuntza ikastaroetan eskuratu du, edo prestakuntza bilera espezifikoen bidez, kontroleko langileei prestakuntza ematea helburu dutenak.
- Inpartziala izango da eta ez du interes-gatazkarik izango. Ikuskatzaileak ezin du lagina osatzen duten elementuetako bat ere aldatu. Beharrezkoa bada, eta betiere justifikatutako arrazoiengatik, kontrolak egiteaz arduratuko den pertsonak ikuskatu beharreko beste ustiategi bat esleituko du, erreserbako ustiategietatik abiatuta.
- Ikuskapen motaren arabera, bitarteko material egokiak izango dituzte (argi eta soinu neurgailuak, zinta metrikoa, kalkulagailua, ordenagailu eramangarria hala badagokio, eta abar), eta laginak hartzeko materiala, beharrezkotzat jotzen badute.
- Kontrolak egiteko beharrezkoak diren egiaztapen zerrendak eraman beharko dituzte.
- Ikuskatzaileak ustiategira egindako bisitak formatu sistematiko eta ordenatua jarraitu behar du,

ANEXO II

EL PERSONAL INSPECTOR Y EL PROCEDIMIENTO DE INSPECCIÓN

El trabajo a desarrollar por el equipo de inspección en la realización de los controles oficiales sobre el terreno según el programa de que se trate, seguirá los siguientes criterios:

1.- Criterios generales de actuación.

Los controles sobre el terreno se podrán anunciar, siempre que no se comprometa el objetivo perseguido y en aquellos controles en los que así esté previsto, El aviso se limitará al plazo mínimo necesario y no excederá de 48 horas. La fecha de aviso del control, figurará en el acta y deberá justificarse el motivo del mismo.

2.- El personal inspector deberá:

- Contar con toda la información necesaria, así como con las instrucciones detalladas de modo que se garantice que todos los controles se realizan con arreglo a un procedimiento común preestablecido.
- Dispondrá de la experiencia, los equipos y la infraestructura necesarios para ejercer estas funciones de control oficial. La formación requerida la ha adquirido en cursos de formación organizados por el Gobierno Vasco o sus organismos autónomos o mediante reuniones formativas de carácter específico que tengan como finalidad dar formación al personal de control.
- Será imparcial y no tendrá ningún conflicto de intereses. El inspector, no puede cambiar ningún elemento de los que componen la muestra. Si fuese necesario, y siempre por causa justificada, la persona encargada de la ejecución de los controles será la que asigne una nueva explotación a inspeccionar a partir de las de reserva.
- Dispondrán de medios materiales adecuados en función del tipo de inspección (medidores de luz y sonido, cinta métrica, calculadora, ordenador portátil en su caso, etc.) y de material de toma de muestras por si lo consideraran necesario.
- Deberán llevar las listas de comprobación necesarias para llevar a cabo los controles.
- La visita del inspector a la explotación debe seguir un formato sistemático y ordenado, que

kontrol ofizialaren denbora optimizatzen laguntzeko.

3.- Ikuskapen prozedura.

Kontratuaren hasiera:
Ikuskatzaileak

- Identifikatu eta Foru Aldundiak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko du, eta ikuskapenaren helburua iragarri.

- Ustiategian edo ikuskapena egingo den lekuan zergatik dagoen adieraziko du, eta kontrola nola egingo den jakinaraziko du, ezarritako arauak betetzen direla egiaztatzeko aukera emanez.

- Ustiategiaren titularraren, legezko ordezkariaren edo arduradunaren presentzia eskatuko du, eta ikuskapenean lagun diezaioten eskatuko die.

Ustiategiaren titularrak, garraiolariak edo hilketa egingo den lekuaren titularrak betebehar hauek ditu:

- Instalazio, produktu edo zerbitzuei buruzko mota guztietako informazioa ematea, ikuskatzaileek zuzenean egiaztatu ahal izan dezaten.
- Dokumentazio horren kopia lortzeko aukera ematea.
- Laginak ofizialki hartzen uztea.
- Kontrol ofizialeko bisitak egiteko baimena ematea eta horretarako erraztasun guztiak ematea.

Ustiategiaren titularrak, ordezkariak edo arduradunak ikuskapenari uko egiten badio edo horretan laguntzen ez badu, ikuskatzaileak horren berri emango du ikuskapen-aktan, eta aktan jasotako emaitzak baliozkotzat joko dira.Administrazio publikoen ikuskapen eta kontrol jarduerari aurka egitea eta ez laguntzea, jarduera hori egitea modu larrian eragozten edo zailtzen ez duenean, arau-haustetzat hartuko da, animalien osasunari buruzko apirilaren 24ko 8/2003 Legearen arabera.

4.- Akta jasotzea.

Elkarrizketa eta aurkezpena egin ondoren, ikuskatzaileak dagokion programaren akta egingo du: animalien ongizatea, higienea, hilketa, garraioa. Aktak ikuskatzailearen inizialekin eta zenbaki korrelatibo batekin identifikatuko dira, urtea adierazita (adibidez, ABC 01/21). Akta bat egindako ikuskapen mota bakoitzeko.

Aktak honako atal hauek ditu:

favorecerá la optimización del tiempo del control oficial.

3.- El procedimiento de inspección

Inicio del control
Personal Inspector

- Deberá identificarse y presentar la acreditación emitida por la Diputación Foral y anunciar el objetivo de la inspección.
- Declarar el motivo de su presencia en la explotación o lugar en que se lleve a cabo la inspección, e informar de la forma en que se va a llevar a cabo el control, dándole así la oportunidad de verificar que se respetan las reglas establecidas.
- Solicitar la presencia del titular, representante legal o persona responsable de la misma, y les solicitará que le acompañen durante la inspección.

El titular de la explotación, transportista o titular del lugar de la matanza, tiene la obligación de:

- Suministrar toda clase de información sobre instalaciones, productos o servicios, permitiendo la directa comprobación por los Inspectores.
- Facilitar que se obtenga copia o reproducción de la referida documentación.
- Permitir que se practique la oportuna toma oficial de muestras.
- Consentir la realización de las visitas de control oficial y dar toda clase de facilidades para ello.

En el caso de que el titular de la explotación, representante o responsable de la misma, rehúse o no colabore con la inspección, el inspector hará constar este hecho en el acta de inspección y se darán por válidos los resultados de la inspección reflejados en el acta. La oposición y falta de colaboración con la actuación inspectora y de control de las Administraciones públicas, cuando no impida o dificulte gravemente su realización se considera infracción, conforme a la Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal.

4..-Levantamiento del acta.

Tras la entrevista y presentación, el inspector iniciará el levantamiento del acta del programa que corresponda: bienestar animal, higiene, matanza, transporte. Las actas serán identificadas con las iniciales del inspector y un número correlativo haciendo indicación al año (Ej.: ABC 01/21). Un acta por cada inspección y tipo realizada.

Esta acta incluye los siguientes apartados:

A.- ZATI OROKORRA. Kontrol ofiziala identifikatzeko administrazio datuak.

- Hala badagokio, *aurreabisurik* izan den, *zein egunetan* (gehienez 48 ordu), eta justifikazioa.
- Kontrola egin den *eguna eta ordua*.
- *Ikuskatzailearen identifikazioa.* Izen-abizenak, eta dagokion unitatearen izena.
- *Titularraren identifikazioa.* Izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta adieraztea titularra, ordezkaria edo lekukoa den, eta ustiategiaren kodea.

B.- ZATI ESPEZIFIKOA, ARAU EDO EGINTZA BAKOITZA BEREIZITA ISLATZEN DUENA. (Ustiategiko kontrol ofizialeko galdetegia):

- Kontrolatu beharreko elementuak
- Kontrolaren emaitzak.
- Kontrol ofiziala aktan deskribatutako ordenan egingo da, eta eremu guztiak beteko dira akta osoa osatu arte. Galdetegiak ikuskatzaileari aukera ematen dio kontrolatu beharreko elementu bakoitzaren egoera egiaztatzeko: betetzen du, ez du betetzen edo ez da egokia. Gainera, bereizi egin behar da kontrola ez dela egin arrazoiren batengatik (adibidez, aldi desegokia) edo kontrol hori ez dela egin ez delako egokia (ez dagokio).
- Aktaren emaitzak aurkeztu eta irakurriko dizkio abeltzainari (titularra edo ordezkaria).

C.- OHARRAK

Ikuskatzaileak atal hau bete beharko du kontrolatu beharreko elementu guztietarako, garrantzitsutzat jotzen duen edozein zirkunstantzia adieraziz, besteak beste:

- Zergatik ezin izan den elementu bat kontrolatu.
- Adierazi, hala badagokio, analisi kimiko edo fisikoetarako laginak, argazki digitalak eta abar hartu diren.

D.- ALEGAZIOAK.

Titularrak, haren ordezkariak edo kontrola ikusten egon den beste pertsona batek eginak.

E.- SINADURAK. Ikuskatzailearena eta titularrarena edo haren legezko ordezkariarena.

Aktan egindako edozein zuzenketak edo ezabaketak sinatzaileen adostasuna jaso beharko du eta idatzi gabeko zatiak baliogabetu egin beharko dira.

A.- PARTE GENERAL. Datos administrativos identificativos del control oficial.

- En su caso, si ha habido *preaviso, la fecha del mismo* (máximo 48h) y su justificación.
- *Fecha y hora* en la que tiene lugar el control.
- *Identificación del inspector*. Apellidos y nombre y nombre de la unidad a la que pertenece.
- *Identificación del titular*. Apellidos y nombre, número de identificación fiscal e indicación de si es el titular, su representante o testigo, así como el código de la explotación.

B.- PARTE ESPECÍFICA QUE REFLEJE DE FORMA SEPARADA CADA NORMA O ACTO. (Cuestionario de control oficial en la explotación):

- Elementos a controlar
- Los resultados del control.
- El control oficial se realizará en el orden descrito en el acta, y se irán rellenando los diferentes campos hasta completar toda el acta. El cuestionario permite al inspector verificar el estado de cada uno de elementos a controlar: cumple, no cumple o no procede. Además, hay que diferenciar si el control no ha podido realizarse por alguna causa (por ejemplo, periodo inadecuado) o si dicho control no se ha realizado por no ser pertinente (No Procede).
- Presentará y leerá los resultados del acta al ganadero (titular o representante).

C.- OBSERVACIONES.

El inspector deberá cumplimentar este apartado, para todos los elementos a controlar, indicando cualquier circunstancia que considere relevante, entre ellas:

- Motivos por los que un elemento no se ha podido controlar.
- En su caso, indicar si se han tomado muestras para análisis químicos o físicos, fotografías digitales, etc.

D.- ALEGACIONES.

Formuladas por el titular, su representante u otra persona que presencie el control.

E.- FIRMAS. Del inspector y del titular o su representante legal.

Cualquier enmienda o tachadura en el acta deberá ser salvada por los firmantes y anuladas las partes no escritas.

F.- AKTA ITXIERA

Galdetegia amaitu eta laginak hartu ondoren, akta itxi egingo da.

Halaber, akta bat baino gehiago erabiltzeko aukera aurreikusi beharko da, kontrolatu beharreko ustiategiak ekoizpen unitate bat baino gehiago dituenean edo aldi berean beste kontrol batzuk egiten direnean.

Ikuskatzaileak ez-betetzeren bat hautematen duenean, hori egiaztatzen laguntzen duten ebidentziak eta frogak bildu beharko ditu. Beharrezkoa bada, laginak hartuko ditu (lurzorua, ura, odola …), argazki digitalak egingo ditu, interesgarriak diren ohar zehatzak jasoko ditu, etab., eta hori guztia osorik adieraziko du ondorengo Kontrol txostenean. (IV. ERANSKINA)

Ikuskatzaileak:

- Aktaren emaitzak abeltzainari (titularra, ordezkaria edo lekukoa) aurkeztu eta irakurriko dizkio, hark aktaren itxiera sinatu aurretik.
- Abeltzainari (titularra, ordezkaria edo lekukoa) galdeketaren edo, oro har, bisitaren emaitzei buruz sortzen zaizkion zalantzak argitu behar ditu.
- Abeltzainari (titularra, ordezkaria edo lekukoa) azalduko dio zer izapide egingo diren bisitaren eta hartutako laginen analisiaren ondoren, halakorik balego.
- Abeltzainari (titularrari, ordezkariari edo lekukoari) jakinaraziko dio txosten bat egingo duela, ustiategiaren aktan dauden ez-betetzeak argi eta garbi jasoko dituena.

Dagokion AKTA berrikusi ondoren, abeltzainaren (titularra, ordezkaria edo lekukoa) eta ikuskatzailearen sinadurak jasotzen dira, baita aktaren itxiera-data ere. Abeltzainak (titularra edo ordezkaria) kontrol-akta sinatzeari uko egiten badio, ikuskatzaileak jasota utziko du hori. Horrek ez du kontrola baliorik gabe utziko.

Aktaren kopia bat emango zaio abeltzainari (titularra, ordezkaria edo lekukoa). Laginak hartuz gero, abeltzaintza ustiategiaren titularrari laginak hartzeko aktaren kopia bat emango zaio, ikuskapen aktaren kopiarekin batera.

F.- CIERRE DEL ACTA

Una vez finalizado el cuestionario y la posible toma de muestras se procede a realizar el cierre del acta.

Se utilizarán varias actas cuando la explotación objeto de control tenga varias unidades de producción o se efectúen simultáneamente otros controles.

Cuando el inspector detecte un incumplimiento, deberá reunir evidencias y pruebas que apoyen su constatación. Si es necesario, tomará muestras (de suelo, agua, sangre…), fotografías digitales, observaciones detalladas de interés, etc., e indicará todo ello, de forma completa, en el Informe de control posterior. (ANEXO IV)

El inspector:

- Presenta y lee los resultados del acta al ganadero (titular, representante o testigo), antes de que éste firme el cierre del acta.
- Debe aclarar cualquier duda que se le presente al ganadero (titular, representante o testigo), con respecto a los resultados del cuestionario o de la visita en general.
- Explica al ganadero (titular, representante o testigo), cuáles van a ser los trámites que siguen a la visita y al análisis de las muestras tomadas, si hubiera habido.
- Informa al ganadero (titular, representante o testigo), de que va a elaborar un informe que va a reflejar de forma clara los incumplimientos existentes en el acta de la explotación.

Tras revisar el ACTA correspondiente, se recogen las firmas del ganadero (titular, representante o testigo) y del inspector, así como la fecha de cierre del acta. En caso de que el ganadero (titular o representante) se negara a firmar el acta de control, el inspector dejará constancia de esta circunstancia. En ningún caso este hecho invalida el control.

Se le entregará al ganadero (titular, representante o testigo) una copia del acta. En caso de hacer una toma de muestras, se facilitará a la persona titular de la explotación ganadera una copia del acta de toma de muestras, junto con la copia del acta de inspección.

5.- KONTROL TXOSTENA.

Egindako kontrol bakoitzeko, ikuskatzaileak **ikuskapen akta** bat eta **kontrol txosten** bat sortuko ditu, eta, bertan, atzemandako ez-betetze bakoitzaren alderdi teknikoak jasoko dira; horrela, ez-betetzea Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzutik Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuko albaitari-teknikariari (programaren arduradunari) bidaltzen zaionean, azken horrek ez-betetzearen larritasuna, irismena eta jarraitutasuna balora ditzake. Txostenen ereduak Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak emango ditu.

6.- EMAITZAK KARGATZEA

Zereginak betetzean, autokontrolaren printzipioaren arabera jokatuko da eta, beraz, okerrak zuzentzera joko da.

Ikuskapen-taldeak "Abeltzaintzako ikuskapenak WEB" aplikazioan kargatuko ditu ikuskapenaren emaitzak.

Era berean, eta Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak egokitzat jotzen badu, kontrolak errepikatzea erabaki ahal izango du hala behar duten ustiategietan.

7.- EMAITZAK BIDALTZEA

Aktak eta kontrol-txostenak GFAko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzura bidaliko dira, programaz arduratzen den albaitari-teknikariari zuzenduta, kontrola egin eta hurrengo astean. Bidalketa bakoitzean "bidalketa orri" bat beteko da, bidalitako espedienteen zerrendarekin (V. ERANSKINA)
Egin beharreko egiaztapenak egin ondoren, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzura bidaliko dira.

8.- DOKUMENTAZIOA TRATATZEA ETA ARTXIBATZEA

Abeltzaintzako ustiategietako ikuskapen prozedura honetan deskribatutakoaren arabera sortutako informazio guztia informatikoki artxibatuko da bai "**ABELTZAINTZAKO WEB IKUSKAPENEN PROGRAMA"** izenekoan, bai **Z/partekatua 22** Unitatean dagokion artxiboan. Kontrol aktak eta

5.- INFORME DE CONTROL

Para cada control realizado el inspector generará un **acta de inspección** y un **informe de control** que recogerá los aspectos técnicos de cada incumplimiento detectado de manera que cuando sea remitido desde el Servicio de Inspección y Control al técnico veterinario del Servicio Promoción y Sanidad Agro-ganadera encargado del programa éste pueda valorar la gravedad, alcance y persistencia del mismo. Los modelos de informe serán facilitados por el Servicio de Inspección y Control.

6.-CARGA DE RESULTADOS

Se seguirá el principio de autocontrol en la realización de las diferentes tareas corrigiendo los aspectos erróneos.

El equipo de inspección cargará los resultados de la inspección en la aplicación de “Inspecciones Ganaderas WEB”.

Asimismo, y siempre y cuando el Servicio de Inspección y Control lo estime conveniente, podrá determinar la repetición de los controles en aquellas explotaciones que así lo precisen.

7.- ENVIO DE RESULTADOS

Tanto las actas como los informes de control se remitirán al Servicio de Inspección y Control de la DFG a la atención de la persona técnica veterinaria encargada del programa dentro de la semana siguiente a la realización del control. En cada envío se cumplimentará una “hoja de envío” con la relación de los expedientes remitidos. (ANEXO V)
Una vez realizadas las comprobaciones oportunas se reenviarán al Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera.

8.- TRATAMIENTO Y ARCHIVO DE LA DOCUMENTACIÓN

Toda la información generada según lo descrito en este procedimiento de inspección en explotaciones ganaderas se archivará informáticamente tanto en el “**PROGRAMA INSPECCIONES GANADERAS WEB”** como en el archivo que corresponda de la Unidad Z/partekatua 22 Las actas e informes de

txostenak, jakinarazpenekin batera, karpeta espezifikoetan artxibatuko dira ikuskapen urtean.

control junto con las notificaciones se archivarán en carpetas específicas en el año de la inspección.

III. ERANSKINA

USTIATEGIAN TANGAKO ESNE GORDINAREN LAGIN OFIZIALA HARTZEKO PROTOKOLOA.

Analisiaren fidagarritasunak, hasteko, laginak ondo hartzea eskatzen du.

Laginak esne masaren zati guztiz adierazgarria izan behar du, behar bezala identifikatua, eta analizatu arte hotzean behar bezala gordea.

Lagin hartze akastunak, kasu guztietan, akats bat dakar abeltzainak entregatutako esnearen kalitatearen balorazioan.

1.- LAGINAK JASOTZEA

Ikuskatzaileak ustiategiko tangan esne gordinaren lagina hartzeko behar diren material guztiak prestatuko ditu eta egiaztatuko du **garbi eta egoera ezin hobean** daudela.

Lagina hartu aurretik, ikuskatzaileak eskuak eta besoak garbituko ditu.

Esnea kontu handiz nahastuko da laginketaren aurretik, tangaren nahasgailuaren edo lagin hartzailearen bidez (astintzeko, nahasgailua tangan edo marmitan sartu, eta goranzko eta beheranzko mugimendu azkarrak egin, esnearen homogeneizazioa bermatzeko eta koipea paretei itsastea saihesteko).

Lagina berehala hartuko da, esnea artean mugitzen ari dela.
Lagin hartzailea esnean sartu aurretik, uretan eragin eta indarrez xukatu behar da.

Jarri ontzia burruntzalian eta hartu lagina tangatik.

Burruntzaliarekin, hainbat hartualditan, gutxienez 150 ml-ko esne bolumena jasoko da tapoi urdineko ontziak betetzeko, eta 150 ml-koa tapoi zuriko ontziak betetzeko. Hasierako ontzian utziko da, eta garbi, lehor eta esterilizatua egon beharko du. Ontzi hori astindu egingo da edukia homogeneizatzeko, eta 3 azpilaginetan banatuko da: hasierakoa, kontraesanekoa eta erabakitzailea.

Azpilagin bakoitzak 50 ml-ko ontzi bat izango du.

50 ml-ko ontziak beren edukieraren 4/5era arte beteko dira, laborategian ondoren homogeneizatzeko espazioa (laborategiak analizatzeko eskatzen duen gutxieneko kantitatea 35 ml-koa da), eta bi ontzi kontu handiz beteko dira. Ontzi horiek azidiol

ANEXO III

PROTOCOLO DE TOMA DE MUESTRA OFICAL DE LECHE CRUDA DE TANQUE EN LA EXPLOTACION.

La fiabilidad de un análisis comienza con una buena toma de muestras.

La muestra tiene que ser una porción totalmente representativa de la masa de leche, correctamente identificada y adecuadamente conservada hasta su análisis.

Una toma de muestras defectuosa conlleva en todos los casos un error en la apreciación de la calidad de la leche entregada por el ganadero.

1.- RECOGIDA DE MUESTRAS.

El inspector preparará y comprobará que todos los materiales necesarios para la toma de muestra de leche cruda del tanque de la explotación están **limpios y en perfectas condiciones.**

El inspector procederá al lavado de manos y brazos antes de tomar la muestra.

Se mezclará cuidadosamente la leche antes del muestreo mediante el mezclador del tanque o con el tomador de muestras (Para agitar, introducir el mezclador en tanque, cántara etc… y efectuar rápidos movimientos ascendentes y descendentes, para garantizar la homogeneización de la leche y evitar que la grasa no se adhiera a las paredes).

La muestra se tomará inmediatamente, cuando la leche aún esté en movimiento.
Antes de introducir el tomador de muestras en la leche hay que aclararlo y escurrirlo vigorosamente.

Colocar el frasco en el cacillo y tomar la muestra del tanque.

Se recogerá con el cacillo, en varias tomas, un volumen de leche de al menos 150 ml para rellenar los frascos con tapón azul y 150ml para rellenar los frascos tapón blanco. Se depositará en el recipiente inicial que deberá estar limpio, seco y estéril. Este envase se agitará para homogeneizar el contenido que se repartirá en 2 submuestras.

Cada submuestra constará de un frasco de 50 ml.

Se llenarán los frascos de 50ml hasta los 4/5 de su capacidad, -la cantidad mínima requerida por el laboratorio para su análisis es de 35ml- con espacio para la posterior homogeneización en el laboratorio, se rellenarán dos frascos con sumo cuidado. Estos

kontserbagarria (kolore urdineko produktua) eramaten dute, eta ez du tantarik erori behar tangara, marmitara eta abarrera.

Laginak hartu ondoren, hozte–tanga itxiko da.

Lagindu beharreko esnea esne-tanga batean baino gehiagotan badago, tanga bakoitzeko lagin bat hartuko da.

Nolanahi ere, nekazaritzako elikagaien katean eta horrekin lotutako eragiketetan egindako kontrolei eta beste jarduera ofizial batzuei buruzko uztailaren 1eko 562/2025 Errege Dekretuaren II. kapituluan laginak hartzeko ezarritako baldintzak eta prozedura beteko dira.

frascos llevan el conservante azidiol (producto de color azul) y no debe caer ninguna gota al tanque, cántara, etc.

Completada la toma de muestras se cerrará el tanque de refrigeración.

Si la leche a muestrear está en más de un tanque de leche, se tomará una muestra de cada tanque.

En cualquier caso, se seguirán los requisitos y el procedimiento para la toma de muestras establecido en el capítulo II del Real Decreto 562/2025 de 1 de julio, relativo a los controles y otras actividades oficiales realizados sobre la cadena agroalimentaria y operaciones relacionadas.

2.- LAGINAK IDENTIFIKATZEA.

Laginak hartutako momentuan bertan identifikatu behar dira, laborategiak emandako etiketa itsasgarria ontzian erantsiz. Etiketetan honako datu hauek agertuko dira: akta zenbakia, zigilu zenbakia, data, egin beharreko analisia, lekukoaren eta baimendutako albaitariaren sinadurak.

Azpilaginak plastikozko poltsetan sartuko dira, eta poltsa bakoitzean tapoi urdineko ontzi bat eta tapoi zuriko beste ontzi bat sartuko dira. Itxiera-zigiluan, akta-zenbakia, matrizea eta egin beharreko analisia adieraziko dira.

Bi poltsak Lekunberriko Laktologia Institutura bidaliko dira.

2.- IDENTIFICACION DE LAS MUESTRAS.

Las muestras se identificarán en el momento de la toma mediante la colocación en el frasco de una etiqueta autoadhesiva. En las etiquetas figurará el nº de acta, nº de precinto, fecha, análisis a realizar, firmas del testigo y del veterinario autorizado.

Las submuestras se introducirán en bolsas de plástico, en cada bolsa se introducirán un frasco de tapa azul y otro frasco de tapa blanca. En el precinto de cierre se indicará el nº de acta, la matriz y el análisis a realizar.

Las dos bolsas se enviarán al Instituto Lactológico de Lekunberri.

3.- LAGINAK HARTZEKO AKTA.

Laginak hartu ondoren, aktan jasoko dira egokitzat jotzen diren ohar guztiak, baita ordezkariak laginak ofizialki hartzean egiten dituen alegazioak ere.

Ikuskatzaileak eta ustiategiko ordezkariak sinatuko dute akta, eta kopia bat utziko zaio ordezkariari.

Analisia egiteko unean ustiategiko ordezkariak eta hark izendatutako perituak laborategian egon nahi badute, aktaren dagokion atala bete beharko da.
Bertan egon nahi ez badu, aktaren ohar atalean azalduko da hori.

Tanga ezberdinetatik lagin bat baino gehiago hartuz gero, aktan zehaztuko da. Lagin bakoitzak zigilu zenbaki bat izango du.

3.- ACTA DE TOMA DE MUESTRAS.

Al finalizar la toma de muestras, se recogerán en el acta todas aquellas observaciones que se consideren oportunas, así como las alegaciones que el representante realice durante la toma oficial de muestras.

El acta será firmada por el inspector y el representante de la explotación, se dejará una copia al representante.

Si el representante de la explotación quiere estar presente (así como el perito que el designe) en el Laboratorio en el momento de realizar el análisis, se deberá rellenar el correspondiente apartado del acta.
Si no quiere estar presente, se hará contar este hecho en el apartado de observaciones del acta.

Si se toman varias muestras de distintos tanques, se especificará en el acta. Cada muestra tendrá un nº de precinto diferente.

Laborategia Laboratorio	**Helbidea** Dirección	**Herria** Municipio	**Eguna** Día	**Ordua** Hora

4.- LAGINAK KONTSERBATZEA ETA LABORATEGIRA BIDALTZEA.

Egin beharreko analisi orria (II. eranskina) eta esne laginen bidalketaren erregistro orria (III. eranskina) beteko dira, hozkailu isoterman sartuko dira eta hozkailua zigilu batekin itxiko da.

Hozkailua (azpilaginetako bat laborategira bidaliko da) Iparlat-era (Urnieta) eramango da laginak hartzen diren egun bereko 14:00ak baino lehen, eta lagin hartzaileen kabinan utziko da. Beste azpilagina Fraisoron entregatuko da izozkailuan kontserbatzeko, titularrak bigarren aditu-irizpen bat egiteko eskubidea baliatu nahi badu ere aurkako analisi, saiakuntza edo diagnostikorik eginez gero, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 EB Erregelamenduaren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ostiraletan ez da esne laginik hartuko.

4.- CONSERVACION Y ENVIO DE MUESTRAS AL LABORATORIO.

Se rellenará la hoja de análisis a realizar (Anexo II) y la hoja de Registro de envío de muestras de leche (Anexo III), se introducirán en la nevera isoterma y se cerrará la nevera con un precinto.

La nevera (con una de las dos submuestras se enviarán al laboratorio) se llevará a Iparlat (Urnieta) antes de las 14:00 del mismo día de la toma de muestras y se dejará en la cabina de los tomadores de muestras. La otra submuestra se entregará en Fraisoro para su conservación en el congelador por si el titular quisiera ejercer su derecho a realizar un segundo dictamen pericial en caso de análisis, ensayo o diagnóstico desfavorable, según lo dispuesto en el artículo 35 del Reglamento UE 2017/625 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de marzo de 2017.

Los viernes no se tomarán muestras de leche.

IV. ERANSKINA

KONTROL TXOSTENA

ANEXO IV

INFORME DE CONTROL

PROGRAMA:

AKTA ZK. Nº ACTA	**Data** Fecha	**BAIMENDUTAKO ALBAITARIA/** VETERINARIO AUTORIZADO **(Izen abizenak** / Nombre Apellidos **)**

	USTIATEGIAREN DATUAK DATOS DE LA EXPLOTACIÓN
Aurre-abisua / Preaviso: **Ikuskapenaren eremua** / Marco de la inspección: ☐ **Orokorra** / General ☐ **Txekorrak** / Terneros ☐ **Txerriak** / Porcino ☐ **Oilo erruleak** / Gallinas ponedoras ☐ **Haragitako oilaskoak** / Pollos de carne	**Ustiategi kodea** / Código de Explotación: **TITULARRA** / TITULAR **Izen abizenak** / Nombre y apellidos: **NAN-IFZ** / DNI-NIF: **Helbidea** / Dirección: **Herria** /Municipio: **PK** / CP: **Tel.** :

IKUSKAPENEAN AURKITUTAKO EZBETETZEEN BANAKAKO AZALPENA:
DESCRIPCIÓN INDIVIDUALIZADA DE LOS INCUMPLIMIENTOS DETECTADOS EN LA INSPECCIÓN:

…….. an, 20XXko, …….aren……an

Izen Abizenak eta Sinadura:

V. ERANSKINA

BIDALKETAK KONTROLATZEKO DOKUMENTUA

ANEXO V

DOCUMENTO DE CONTROL DE ENVÍOS

IKUSKAPENEN AKTEN BIDALKETAREN KONTROLA
DOCUMENTO DE CONTROL DE ENVÍOS DE ACTAS DE INSPECCIÓN

202X

Kontrol mota/ tipo de control:

IKUSKAPEN ASTEA
SEMANA DE CONTROL:

USTIATEGIKO KODEA CODIGO DE LA EXPLOTACIÓN	**AKTA ZK.** Nº ACTA

ALBAITERO BAIMENDUAren O.I.
VºBº VETERINARIO

Sin/ Fdo:

IKUSKAPEN ETA KONTROL ZERBITZUA
SERVICIO DE INSPECCIÓN Y CONTROL

Sin/Fdo.

BIDALTZE DATA
FECHA DE ENVÍO

JASOTZE DATA
FECHA DE RECEPCIÓN

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Animalien ongizate, higiene eta esneekoizpenaren ikuskapenak egiteko baldintza teknikoak

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ANDUEZA OTAEGI, Agurtzane

ZB, IKUSKAPENA ETA KONTROLA
JSV INSPECCIÓN Y CONTROL

Data / Fecha: 2025/11/25 12:27:06

Digitalki sinatua / Firmado digitalmente por:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ARAMBURU GANZARAIN, JOSEBA

ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL

Data / Fecha: 2025/11/28 10:42:05